

EUTSi

nº 41332
CEDOC
FONS
A VUBOT

- 1 -

1-go ZENBAKIA

PRODUZIO BIDEEN SOZIALIZATZEA

Lehenengoz, beharrezko pauso bezala eta edozein jaurbide (régimen) demokratiko Euskalherrian ezartzea baino lehen, produzio bideak sozializatzea babesten dugu.

Gu Euskalherri abstrakto bategatik ez gara ari borrokan, Euskalherriko an-dragizonak era konkreeto batean bizi ahal izan ditezten, baizik. Lehendabizi euskaldunak bezala, bizi ahal izan ditezten, honetaz geroago mintzatuko gara, aldeztu dugun politiko-kulturalazko zenbait puntu ikuitzen dugula. Gizon-emakume libreak bezala bizi ahal izan ditezten, politiko-sozialezko puntu batzuek aldeztu, idatziko dugun zenbait artikulutan azalduz.

Politiko-sozial puntuen artean, lehengoa oraintxe adierazi duguna da. Euzkadin ez dugu nahi eta ezin dugu kapitalista jaurbide bat aldeztu. Pribilegio guztien aurka goaz, nahiz eta jakin guzti horiek kentzeko denbora asko eta asko behar dugula.

Kendu nahi dugun lehenengo pribilegioa, kapitalarena dugu. Beste asko eta askoen iturburua delako, argi eta garbiena delako, eta herrialde batentzat kaltegarriena delako.

Garai honetan, dena elkartasunean egiten ala lantzen dela-ta, egiten den guztia ezin da izan giza-komunidade horren izateari esker baino, beraz lantzen den osoa komunidade horrena eta horrentzat behar du izan. Berhorren la sainesuna gehi dezan egin behar du lan. Komunidadeak behar duena egin behar du. Aterako diren izabaziaz eta lan egiteko daduzkaten medioak, komunidade herrenak eta horrentzat behar dute izan.

Produzio bideak sozializatu gabe, ezin dugu demokratiko jaurbide bat egitera jo; kapitalista jaurbide baten barruan: askatasuna, kultura, politika, ekonomiko bideak, teknika aurrerapenak ... bakarrik, kapitalisten pribilegioak bait dira. Ez ditugu benetako askatasuna, eta jeneralean giza-eskubideak ezesten eta oiltzen; hauxen da esan nahi duguna, euskaldun guztiak goza ditzatela exijitzen dugula eta ez herriaren zati txiki batek bakarrik.

Produzio bide horiek gure herriaren mendean edo eskuetan izan beharko dira. Hau da, produziozko ondasun horien eraen eta gozamina euskal-komunidadeari egokitu behar zaio, langileen konsejuen, produziozko erakundeen, munizipioen, probintzien, eta euskal-federazioaren bitartez.

ZABALDU DEZAGUN GURE ERAKUNDEA

Orain dela hamabost urte euskal erakundeak gure herria berotu eta martxan jarri nahirik guti gora behera garrantzizko eginkizunak egiten zituzten. Eginkizun hauetan, ehuneko 99 kasutan, bakarrik erakundeetako militanteek hartzen zuten parte. Hau da, orain dela hamabost urte militanteak borrokan zebiltzen bitartean gure herria arduratu gabe bizi zen. Gainera, polizikoek norbait harrapatzen bazuten, harrapatze horrek, euskal erakundeetako militante berhauek ere, zer garrantzia zuen ez zuten jasotzerik eta neurtzerik, denbora luze bat igaro arte. Edozein abertzaleak gertaera zoin berandu jasotzen zuen esan beharrik ere ez dago. Behin holako zoria izaten bazuen.

Egun garazak zeharo aldatu dira. Arazo hau aspaldian aipatu genuen, baina azkeneko abenduaren geroztik usten dugu denontzat aski garbi gelditu dela. Bilbon, Eibarren, Bermeon, Errenterian, Gaztebizen, Gernikan eta abar eta abar, herria egintzarako prest ikusi dugu, lagundu eta lan egin nahiaz, bere aberriaren askatasunagatik bizitza emanaz.

Gertaera hauen aurrean, ikusi dugunez, eta orain dela bostpalau urtetikan i kusten ari garanez, erakundeak eta nahiago baduzute gure erakundeak, uneari zegokio erantzuna ez zion eman.

Gaur egunean euskal erakundeak, adibidez ETA, ondo prestatutako eta burututako egintza bat egiteko gai dira, Donostian Alemaniako Konsula bahitzea bezalakoa. Baina ETA ez da gai egintza sail bat segidan eta lehendik gertutako estratejiari eta taktika dagokien lan bat egiteko; eta ezta, gure aberriko pertsona bakoitzari eginkizun bat emateko, eta horrela gure herri osoa martxan jartzeko, abertzale bakoitza dagokion lekuan izan dedin, denon la -

UAB
Biblioteca de Comunicación
I Hemeroteca General
CEDOC

guntzaz baliatuz gure aberriaren askatasuna lor dezagun.

Era berean, ez dakite edo ezin dute gure herria behar den lekuan jarri, ez ELA-k, ez PNV-k eta ezta beste inolako euskal erakundeak ere.

Guk, nahi badugu agiri batzuk egiteko eta aberri osoan banatzeko gai gara. Hemen esan ezin diren beste gauza asko egiteko ere bai; baina gure herria askatasunaren bidean zuzentzeko ez gara gai, geuk ere ezin dezakegu ukatu egia hau.

Eguntzak banaka egiten es dugun Euskalherriaren askatasuna iritsiko. Gogorrezko egintzak beharrezkoak izango dira, horiek gabe askatasuna lortzeko aurrerakuntza oso motela izango bait litzake. Baina gogorrezko egintzak egi ten bakarrik ez dugu askatasuna lortuko.

Gerrillazko gerraren bitartez ez da salbatuko Euskalherria. Etsai-aberriez inguratua, industrializatutako herrialde batean, eta abr, gerra bat irabazi dezakegula ezin dugu pentsa, ezta gerrillazko gerra bat ere.

Gure askatasuna, bakarrik gure herri osoaren ekintzaren bitartez lortuko du gu. Euskalherri osoak, (edo ahal dugun euskaldun gehienok), askatasunaren borroka honetan parte hartu behar du. Borroka honetan ez dira militar edo gogorrezko egintzak bakarrik izango, beste era askotako egintzak ere izango bait dira.

Gure eginkizuna, gure erakundeko militanteak garenez gera, borroka horretan gure herriari leku bat ematea da, eta horretarako, gure egintza arloa zabal du behar badugu, zabaldu egingo dugu.

Aldiz-aldi gure herriari barriak eman behar dizkiogula-ta, oñharritzkoa dug gu gure borrokaren sentidua adieraziaz zabalkundea prestatzea eta banatzea. Gure helburu urbilena, urrengoko helburua, betetako egintzaen sentidua... behin eta barriz aditzera eman behar diogu. Baina zabalkunde honekin barriak ematen ditugu, gure herria martxan jartzen dugu. Honez gainera, behin herria martxan jarri gero pertsona edo talde bakoitzari bere lekua eman behar dio gu. Guztien egintza horien aurrean gure militanteak jarri behar ditugu, egin tza horiek eragin, zuzendu, ezatu, eta koordinatu behar ditugu.

Gaur badugu beste eginkizun asko ere. Euskal Kultura arloan hain zuzen, orain dela ia hamabost urte eze guti egin zezakean, dena debekatua genuen. Orain barriz, gure etaniek kultura arloan aurreratzen poliki uzten digute, kultura aurrerapenean emango ditugun indarrak, gero sozial eta politiko arloetan fal tatuko zaizkigula alferrikako itxaropenean.

Gure arerioek ez dakite euskal-kultura arloan aurreratzeak, Politiko arloan aurreratzea dakarkigula. Alegia, irakaskintza ikus dezagun. Euskeraz ikasten ari diren haurrak, euskaldunak izango dira, eta espainolez edo frantzesez i kasten ari diren baino gehiago nabaituko dute espainol edo frantzez zampaketa, besteak hizkuntzaren zampaketa ia ez dira konturatzen, kontzientziarik ez zuten garainn hasitako zampaketa bait da, eta kontzientzia izan zutenera ko ikasketak bereganatzeko lanak amaituak zirelako. Azkeneko hauzi, gogor e giten zaigu, baina hizkuntzaren aldetik zampaketa dagozela diegu; ikasketa guztiak euskeraz egin dutenentzat (irratian, T.V.-tan, aldizkaritan, denda tan, agiriko bizitzan eta abar) zampaketa hori aski garbi dagoela usten dugu. Politiko eta kultura gauzek elkar zer-ikusi estua badutela konturatuz, gure jende eta ahalegin batzuk egintza arlo honetan jarri behar ditugu.

Kultura egintza soilean bakarrik ez (eskola ematen, euskeraren batasunaz kez katzen, testuak prestatzen, eta abar), manifestazio,... kasutan esaten geu nen bezelaxe, batez ere gure eginkizuna, kultura egintza hori eragitea, bi dean jartzea, zuzentzea, eratzea, eta abar, behar du izan.

Gure erakundeko militanteak, gure herriaren askatasuna lortzeko borroka zu zentzen, eragiten, eta erazten zaiatu behar dute, dagoen borroka arlo guz tietan.

KUADROENTZAKO ARAUAK

Kultural-egintzaen urrengo helburua egiazko bilinguismo batera lehen bait lehen iristea eta gure herriaren kulturari arlo guztietan, gogor, indar ema tea eta zabaltzea behar du izan.

Bi eratako egintzak bereiztu ditzakegu:

- Kuadro batzuek egin ditzaketanak eta egin beharko dituztenak.
- Kuadro horiek egin ditzaketanak gure herriari eman dezaizkiotenak eta eman behar dizkiotenak. Minoria tipi horren lan eta neketan oin - harriturik eskuratu ditzaketen urrengo egintzak.

Hasteko, gure herriari eman dezaizkioten egintzak azalduko ditugu, hauen az

terketatik irtengo bait dira minoria horrek egin beharko dituen egintzak.

Gure herriari eman behar dizkiogun egintzak

Ba dira batzuek, gure hizkuntza, dantzak, abestiak eta abar heldu ezin diren lekuetan ipintzen dituztenak. Hauen nahia ez da gure herria bere kultura BIZI dedila, bere hizkuntza mintza dedila, abesti, dantza, eta abar barrien bitartez BERE GAURKO KEZKAK adieraz ditzala, heldu ezin diren lekuetan, gure chiturak, gure mintzaira eta abar jartzea baizik.

Horrela ba, nahiago dute euskalki guztiak erabiltzen jarrai ditzan nahiz ahozko hizkuntzan nahiz idatzitakoan, ba da gehiago, hitz denak jatorrizkoak behar dute izan, hortaz, ez dira onhartzen frantzesetik eta gaztelaniatik datozen hitz guztiak; ez dute nahi abestiak eta dantzak eraberritzea, egitatezko folklore bat egiten beti jarrai dezagula nahi dute. Hau da, orain dela ainitz urte zela usten dutena antzerkitan bezala ager-arazten jarrai dezagula. Horiek nahi dutena, ESPAINOL EDO FRANTZES BEZALA BIZITZEA ETA BEHIN BEHIN AMETS EGITEA, da, berroiek benetako euskal kutsukoa dela pentsatzen duenarekin.

Euskera, dantzak eta abar gure bizi moduaren ezaugarriak izan ditezela nahi dugu, gure gaur eguneko herriaren nortasuna ager-araz dezaten. XX MENDEKO EGITAZKO EUSKAL-KULTURA bat nahi dugu.

Abestiak, antzerkiak, ala dantzak, gure gaurko kezka ager-araz ditzatela nahi dugu eta ez EUSKALHERRIAK orain dela bostehun mila urte zituenak. Horregatik bultzatzen dezaiogun gaurko errepertorioa eraberritzeari. Honek ez du esan nahi, gure herriaren antzinako kultura-agerpenak zenbait antzokitan edo lekutan ez direla gogoratu edo eman behar.

Hizkuntzari dagokionez, lehendabiziko oinharri bezala GAURTIK aurrera egitatezko bilinguismoa erabili dezala nahi dugu, eta horrela geroago politiko egoerak laguntzen gaituala, denok gure hizkuntzaz baliatu gaituzten.

Bide honetatik sartu behar dugu bilinguismoa bizitzaren arlo guztietan. Kuadroen eginkizuna, gure herria hizkuntza aldetik zapaltzen dituen zenabit puntu (motibo, toki, une...) desberdinen azterketan datza. Garrantzizko minoria batez lehenago ala geroago lagunduak izan ditezkeen unea aukeratzeko, explotazio hori garbi geldi dedin, herri kontzientziaren aurrean salatu dezazan. Horrela, kuadro horiek minoria ausarta batez lagunduak, oposizioa eta salaketazko jarrerara sendo bat hartzen dutela.

Zapaltzen gaituen frantzes edo espainol monolinguiismoen aurka borroka egiteko gure herriko abertzale minoritari kuadroek eman dezaioteken egintza sail bat ikusiko dugu segidan eta pixkanaka pixkanaka bilinguismoa egoki dedila lor dezagun.

Autobideen arazoa aztertzen badugu, alegia, garbi ikusiko dugu, gure zapaltzaileek egiten ez dutela-ta, kaleetako eta urietako karteletan, seinalazioetan eta gbar espainol ala frantzes irakurgaien azpian euskeraz dagozkieen itzulpenak jarri behar ditugula edo ta besteak jar ditzaten adore eman behar diegula. Adibidez, -7Kms a San Sebastian, Pamplona edo Mondragon- jaritzen duten letrero guztiek, Donostia, Iruña, edo Arrasate izenez erantsiak agertu beharko luteke. Pasaia, Gaztebiz, Donostia eta Bilboko kale guztietan ere horrelako zerbaite egin beharko luke.

Ikastetxetan eta eskoletan bilinguismo arazoa aztertzen badugu berhauen aurrean, ekinaldi handi bat egitea beharrezkoa dela ikusiko dugu, ahal den laisterren bilinguismoa ezar dezaten. Bistan dago, ekinaldi edo kampana hori ezin dela ofizial eskoletan aurrera eramane, baina, libreak diren eskoletan, elizakoetan ala bestelakoetan inork ez digu eragozterik.

Ikastetxe edo eskola bakoitzean, gurasoen arteko garrantzizko minoria bat lortu behar dugu, beren seme-alabak ikasketak euskeraz egin ditzatela eska dezaten eta kultural-zapaltzaileek, (hau da, eskolak zuzentzen dituzten moja-frailleek edo ta akademietan gizon-emakumeek), konturatuz ala konturatu gabe, indarraren eta bidegabekeriaren gehiegikeria ezartzen jarraitu nahi badute, denak opor egiteko prest egon ditezten.

Egitazko bilinguismoa lortu behar dugu eskola guzti horietan, handa nahi duen ikasleak ikasketak euskeraz egin ditzala eta espainolez ikasi nahi duenei euskera irakas dezaiela. Eskola horiek Euskalherria dagozela kontuan eduki gero, hau da, hain zuzen gutienez eskatu eta exajitu behar duguna.

Hori bera elizetan egiten badugu, idazki, liburu... guztiak bi hizkuntzan agertu beharko zirela ikusiko dugu; mezak, katekesiak eta abar bitan egin beharko ziren, eta inoiz, batean egingo balitz, segidan horren laburpen bat

bestean eman beharko luke.

Kazeten problema aztertzen badugu, aldizkariak bilingueak izan ditezkeen lortu behar dela ikusiko dugu. Horretarako arrazoiez azaldu eta eskatu behar dugu, eta gure eskaera ez dutela aditzen ikusiko bagenu beren salketak galerazi beharko genituzte eta euskal kazetak bakarrik babestu, Gazeta del Norte-a, El Pensamiento Navarro-a eta abar bietara, euskeraz eta espainolez, argiratu arte.

Dendatan kartel eta anuntzio guztiak bietara egin ditezkeen lortu behar dela ikusiko dugu, eta gure hizkuntza dakien saltzaileak ez dagoen dendetatik aldegin eta boikot egin behar diegu. Batez ere Gipuzkoa osoan, eta baita ere bere uri-burua den Donostian, eta Bizkaian Bilbotik eguzkialdera dagoen herrietan, saltzaileei bortxatuz gaur bertatik bilinguismoa murrarazi behar den ekinaldia egin dezake. Bilinguismoa onhartzen ez duten denda guztiei boikota egin behar zaie eta herri bakoitzean hilero edo hamabost egunetatik hamabost egunetara herritarren artean banatzeko multikopiaz agiri bat ateratu behar luke zoin dendetara joan behar den eta zoinetara ez adieraziz eta azalduz.

Hori bera eskatu behar dugu lantegietan. Euskeraz gaztelaniaz baino erraztasun handiagoa duenak euskara erabiltzeko eskubide osoa du eta honen ondorioz nahiz goitik behera nahiz behetik gora egindako eskribuak, lantegien arteko komisioren ohar guztiak, lantzeri arazoa, sindikal prolemak, eta abar, bi hizkuntzatan eginak izan beharko dira. Bileratan bilinguismoa exijitu behar dugu. Era berean klub, elkargo, alderdi, sindikato ... guztietan eta baita ere politiko, kultural, ekonomiko eta kirol bileratan GAUR BERTATIK bilinguismoa egokitu dedin eskatu behar dugu, bai beren eskributan, bai bileratan, bai estabaidetan eta abar. Hau egiten ez duten klub edo elkargo guztiei boikota egin behar zaie eta multikopiaz ateratako eskribuak direla medio beren zuzen dariak eta beren jokaera agiriari jarri behar dira. Eredu gehiago ipintzen jarrai genezake baina gure herriari eman dezaiatzien egintza guztiak nahia-gu dugu kuadroen zuhurtasunean lagatzea.

Kuadroentzako egintzak. Bi eratakoak izan ditezke: A) Lehen aipatutako egintzak prestatzeko eta zuzentzeko direnak, b) gaur egintza arlo desberdinetan diren garrantzizko eta kontu handiko lanak helburu bezala dituztenak.

a) Egintzen antolaketa. Egintza konkretu bat eman ahal izateko, lehendabizi aztertu bat egin behar dugu, gaur jakin dezagun proposatzen duguna errealitate den ala ez. Herri konkretu baten eskoletan bilinguismoa jar dezaten eskatu behar da lehen, inkesta bat egitea beharrezkoa dugu, kolegioen azterketa baten, joan diren ikasleak edo joan ditezkeenak zenabtu diren, duten adina, sexoa, eta abar, jakin dezagun. Era berean, lehendabizi eskola edo ikastetxe egokiak aukeratu beharko dugu- bai irakasleen edo zuzendarien aldetik, bai ikasleen gurasoen abertzaletasuna eta euskalduntasuna kontuan edukiz- hasiera errazago bait da. Segidan, gurasoei esan eta aditzera eman beharko zaie egintza hori zergatik egingo den eta zer itxaro dugun beren aldetik, eta abar.

Era horretan, herri bateko giroa ezagutzea komenigarria zaigu egintzako bilinguismo batera eramango gaituzten pausoen ordena kontuan har dezagun. Lehendabizi eskoletan eskatuko ahal dugu? edo ta elizan? gero dendatan? Klubetan? lantegietan? Jeneralean era horretan egin dezake baina herri ala kasu bakoitzean azterketa bat egitea beharrezkoa dugu.

Bilinguismoa onhartzen ez duten klubak, eskolak, dendak, eta abar, kuadroek herriaren aurrean salatu egin behar dituzte. Salaketa-egintza hau nahiko garrantzitsua da dago ezin dela hasi herri horren zenbait toki berdintsutan benetako bilinguismoa sar-erazten ez den bitartean.

b) Eginkizun bereiziak. Gaurtik aurrera pixkanaka bilinguismoa egin dezaten benetan nahi badugu, jende askok eta askok mortik etorriko zaizkigun prolemak gogotik har ditzala behar dugu. Hor dijoazkizue bete behar ditugun eginkizun garrantzitsuenak.

.- Euskeraren batasuna.- Irakaskintza bideen batasuna.- Behar dire ikastarotarako testu guztiak prestatu eta argitaratu.- Irakasleen prestakera.- Haur-kanpamentuen zabalkundea.- Euskara hobegotzera joan nahi dutenentzat baserriak edo biltzeko etxeak gertutzea.- Baita ere euskeraz mintzatzen hasi behar dutenentzat.- Bakarrik euskal liburuak, diskak, eta abar aterako lituzketen euskal editorial batzuek eratu. Holentzat arripidedunak egin. Haurrentzako liburuak, ipuinak, eta tebeoak argitaratu.- Zeruko Argia, Anaitasunak edo beste edozein euskal aldizkariak behar dituen baimenak iritsi dituzan ziuratu eta batez ere egungariak bihur ditezkeen behar dituzten arripidedunak lortu.

Horrela hamaika eginkizun aipatu genezake. Garbi dago eguneroko lanean egiten den egoki bat egin ahal izango dugula eta egin behar dugula eta aintz komisioko eratu behar dugu, bakoitzak eginkizun konkretu bat duela.